

ESPAINIA-FRANTZIA-ANDORRA LURRALDE LANKIDETZARAKO 2007-2013KO PROGRAMA ERAGILEA

AZKEN TXOSTENA



2016ko abenduaren 13a

1.- Sarrera

Kohesio-politika Europako eskualdeen politikan integratua dago, eta Europa 2020 Estrategian jasota dauden Europar Batasuneko oinarrizko lehentasunak sustatzeko inbertsio-tresna nagusia da. Zentzu horretan, Europako kohesio-politikan Europar Batasunak egiten dituen esfortzuek bat egiten dute, Europak talde bezala eta gutxien garatu diren eskualdeek duten posizio lehiakorra hobetzeko.

Europako Lurralde Lankidetzaren kohesio-politikaren lehentasunezko hiru helburuetako bat da. Marko bat eskaintzen die hainbat estatutako eragile nazionaleri eta eskualde eta tokiko mailako eragileei baterako ekintzak eta truke estrategikoak burutzeko.

Europako Lurralde Lankidetzaren helburua, Eskualde Garapeneko Europako Funtsean (EGEF) txertatuta, honako hau da: mugaz gaindiko, nazio arteko eta eskualde arteko lankidetzaren sustatzea EBko eskualdeen artean, Batasuneko lurralde guztia modu harmoniatu, orekatu eta iraunkor batean gara dadin.

2007-2013 aldian, 7.750 milioi euro bideratu dira helburu hori lortzeko. Baliabideen % 74 mugaz gaindiko lankidetzaren finantzatzeko erabili dira, % 21 nazio arteko lankidetzarako eta gainerako % 5 eskualdeen arteko lankidetzarako.

2.- Programaren helburuak eta xedea

Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzarako 2007-2013ko Programa Eragilearekin, laugarrenez eman da Erkidegoko finantza-laguntza Espainia-Frantzia-Andorra mugaldeko integrazio ekonomiko eta soziala indartzeko, eta INTERREG izeneko aurreko programan hasitako ekimenekin jarraitu da.

Programak bost milioi pertsona inguruko biztanleria bati eragin dio, eta haren zuzeneko lurralde-esparrua 74.000 km²-koa da. Inguruko lurraldeak ere kontuan hartuz gero, ia bikoiztu egingo litzateke lurralde hori.

Eskualde Garapeneko Europako Funtsearen aurrekontua 168 milioi eurokoa da, INTERREG IIIA izenekoak zuenaren bikoitza, eta eragiketetan hauta daitekeen kostu osoaren % 65ean ezarri da esku hartzeko tasa.

Hiru ardatz nagusi hauen eremuan eman da laguntza:

- **1. ardatza:** Garapen ekonomikoa, berrikuntza eta giza kapitala
- **2. ardatza:** Natura- eta kultura-ondarea, ingurumen-baliabideak, turismoa
- **3. ardatza:** Garraioak eta IKT; herritarrentzako zerbitzuak (kultura, osasuna, aukera-berdintasuna...).

Gaur egun Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergoa da Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzarako Programa Eragilea kudeatzen duen agintaritza. Bada, lehenengo aldiz da partzuergo bat Espainia-Frantzia Interreg programa kudeatzeko agintaritza.

Pirinioetako Lan Elkartea mugaz gaindiko lankidetzarako eskualde arteko erakundea da, eta 1983. urtean sortu zen Pirinioetan dauden NUTS II mailako zazpi lurralde-agintaritzen inguruan.

- Frantziako 3 eskualde (Akitania, Languedoc-Roussillon, Midi-Pyrénées)
- Espainiako 4 autonomia-erkidego (Aragoi, Katalunia, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa)
- Andorrako printzerria

2007ko abenduaren 18an, Europako Batzordeak Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzarako 2007-2013ko Programa Eragilea onetsi zuen.

3.- Proiektuen hautaketa

Programa eragile horretan islatu zen mugaz gaindiko proiektuen mobilizazioa deialdi itxi eta erregularren bitartez egin behar dela, eta Kudeaketa Agintaritza dela programazio-aldian deialdi horiek egin behar dituen, Jarraipen Batzordeak agindutakoari jarraituz.

Hori dela eta, Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergoak, 2008ko apirilean, 2011. urtera arteko proiektuak ondoz ondoko txanda bitan aurkezteko lehen deialdia iragarri zuen. Lehenengo txanda 2008ko ekainaren 4tik ekainaren 30era bitartean izan zen, eta bigarren txanda 2009ko martxoaren 31n amaitu zen. Proiektuen deialdi horretarako erabilgarri dauden EGEF kredituen zenbatekoa Programa Eragilearen aurrekontuaren % 70ekoa da.

2010eko urtarrilean Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren 15,5 milioi euro zeuden erabilgarri abian zen programaziorako. Proiektuen eskaera askoz handiagoa izan denez, Kudeaketa Agintaritzak erabaki zuen % 81 ingurura doituko zela 1. deialdiaren muga. 165 proiektu aurkeztu ziren lehen deialdian. Horietatik 95 programatu ziren, gehienez ere 33,4 milioi euroko zenbatekoarekin.

2011ko urtarilaren amaieran, Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergoak iragarri zuen 2011. urterako proiektuak aurkezteko bigarren deialdi bat irekiko zela. 91 proiektu aurkeztu ziren deialdi horretan, horietatik 81 onargarriak. Bada, EGEF laguntzako 84 milioi euro eskatu zituzten guztira. Azkenik 38 proiektu programatu ziren, eta Europar Batasuneko 30 milioi euroko EGEF diru-laguntza jasoko dute guztira.

2013ko azaroaren hasieran proiektuak aurkezteko hirugarren deialdia iragarri zen. Horrek aldaketa handiak izan zituen hasieratik. Hasiera bateko planteamenduaren arabera, hirugarren deialdiko onuradun izan ahalko ziren bigarren deialdian proiektuak aurkeztu eta EGEF baliabideen faltagatik programatu gabe geratu zirenak, baldin eta haien lehentasunezko ardatzak bigarrena («Lurraldeak, natura eta kultura-ondareari balioa ematea logika iraunkorrean. Ingurumen-baliabideen kudeaketa babestea eta bultzatzea») eta hirugarrena («Biztanleen bizi-kalitatea hobetzea lurraldearen egituraketaren eta garapen iraunkorraren estrategia komun bidez») baziren.

Hainbat bileraren ondoren erabaki zen 1. ardatza («*Mugaz gaindiko integrazioa indartzea jarduera ekonomikoen, berrikuntzaren eta giza kapitalaren eremuko alderdi osagarriei balioa emanez*») ere barne hartzea eta deialdia programan zehaztutako baldintzak betetzen zituzten proiektuak aurkezten zituzten onuradun guztiei zabaltzea. Deialdi hori 2007-2013 aldirako programazioaren azken fasean kokatzen da, eta, ondorioz, programatzen diren proiektuek modu zehatzean bermatu behar dute aurreikusitako jarduketak deialdian ezarritako epeetan amaituko direla eta jarduketa horiek gauzatzeko finantza-bideragarritasuna dutela.

Hirugarren deialdi horretara 38 proiektu aurkeztu ziren. Akitania izan zen proiektu-kopuru handienean sustatzaileak izan zituen eskualdea (24); haren atzetik EAE (18), Aragoiko Autonomia Erkidegoa (17) eta Midi-Pyrénées eskualdea (16) dituelarik. Kataluniak eta Nafarroak bederatzina proiektutan parte hartzen dute, eta Languedoc-Rousillon eskualdeak hirutan.

Hirugarren deialdi horretan 14 proiektu programatu ziren, eta horiek Europar Batasuneko EGEF diru-laguntzako 5 milioi euroko jasoko dituzte. Gainera, aukera eman zen gerora programazio-batzordeak eratzeke, deialdian aldeko irizpena jaso arren EGEF funtsen faltagatik programatu ezin izan ziren 8 proiektuetarako.

4.- Programazioaren bilakaera 2008-2015. urteetan

Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzarako Programa Eragilearen eremuan, 2008-2014 aldian, bost programazio-batzorde antolatu dira.

4.1. 2008ko programazioa

2008ko abenduan Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzarako Programa Eragilearen lehenengo Programazio Batzordea izan zen, eta bertan 26 proiektu programatu ziren. Proiektu horiek 62,4 milioi euroko laguntza jasoko zuten Eskualde Garapeneko Europako Funtsetik. Programatutako 26 proiektu horietatik 6k Euskal Autonomia Erkidegoko sustatzaileen partaidetza zuten.

Sei proiektu horien guztizko kostua 9 milioi euro ingurukoa da. Horietatik 2,5 milioi euro euskal bazkideen inbertsio eskusibokoak dira eta EGEFen 1,8 milioi euroko laguntza jasoko dute.

Lehenengo txanda honetan parte hartu duten EAEko bazkideei dagokienez, zuzenbide pribatuko erakunde bat eta zuzenbide publikoko 6 erakunde ditugu.

Zuzenbide pribatuko erakundeak	Zuzenbide publikoko erakundeak
Inasmet	Eusko Jaurilaritza
	Gipuzkoako Foru Aldundia
	Arabako Foru Aldundia
	Akitania Euskadi Plataforma
	Azti Fundazioa
	Donostiako Zinemaldia

4.1.1.- 2008an amaitutako proiektuak

2008. urtean programatutako 26 proiektuetatik, 3. ardatzean kokatutako «**ZINEMA ERAIKITZEN**» proiektua amaitu egin da. Proiektuaren xedea da filmatu arren postprodukzioan arazoak dituzten Latinoamerikako fikziozko film luzeak bukatzeko laguntza ematea. Horretarako, lanak amaitzeko ekarpena egin dezaketen profesionalen talde bati aurkezten zaizkio filmak (ekoizleak, profesionalak eta industria teknikoak, banatzaileak, erakundeak, zinemaldien antolatzaileak). Proiektuan parte hartu zuen euskal sustatzailea, Donostiako Zinemaldia, proiektuko taldeburua izan zen.

4.2. 2009ko programazioa

2009. urtean bitan programatu ziren proiektuak. Lehenengoa idatzizko kontsulta bidez egin zen maiatzean, eta bigarrena ekainean. Bi programazio horien ondorioz, beste 41 proiektu onartu ziren, 51 milioi euro inguruko guztizko zenbatekoarekin. Programatutako 41 proiektuetatik, 8k Euskadiko bazkideen parte-hartzea izan zuten 2,7 milioi euroko diru-laguntzarekin.

EGEF funtsak jasoko zituzten Euskadiko sustatzaileak zuzenbide pribatuko 4 erakunde eta zuzenbide publikoko 7 erakunde izan ziren.

Zuzenbide pribatuko erakundeak	Zuzenbide publikoko erakundeak
Tecnalia Fundazioa	IKT
Gaiker	Neiker
Eusko Ikaskuntza	Gipuzkoako Merkataritza Ganbera
Euskal Herriko Surf Federazioa	Donostiako Sustapena
	Aclima
	Victoria Eugenia antzokia
	Bilboko Udal Etxebizitzak TEA
	Gipuzkoako Ikasketa eta Ikerkuntza Teknikoen Zentroa

4.3. 2010eko programazioa

2010eko otsailaren 10ean Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzarako Programa Eragilearen hirugarren Programazio Batzordea izan zen, eta bertan 28 proiektu programatu ziren. Horien guztizko zenbatekoa 51 milioi eurokoa izan zen, eta Europar Batasuneko EGEFen 33,5 milioi euroko diru-laguntza jasoko dute.

Programatu diren 28 proiektu horietatik 12k Euskal Autonomia Erkidegoko sustatzaileen partaidetza dute. Hamabi proiektu horien kostua, guztira, 27,5 milioi eurokoa da eta horietatik 8,6 milioi euro euskal bazkideen inbertsio eskusibokoak dira, EGEFen 5,6 milioi euroko ekarpen orokorra jasoko dutelarik.

Hirugarren programazio honetan parte hartu duten EAeko bazkideei dagokienez, zuzenbide pribatuko 3 erakunde eta zuzenbide publikoko 12 erakunde ditugu.

Zuzenbide pribatuko erakundeak	Zuzenbide publikoko erakundeak
Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa	Bidasoko Garapen Agentzia
Eteo s. coop	Arabako Foru Aldundia
Munduko Medikueak	Irungo Udala
	Hondarribiko Udala
	Asociación Hezi –Zerb Heziketa eta Zerbitzuak
	Itsasmendikoi
	Neiker
	IKT
	Donostiako Sustapena
	Donostiako Zinemaldia
	Arabako Bergizarteratze Institutua
	Ardiekin s.l

4.3.1. 2010ean amaitutako proiektuak

Sei proiektu amaitu ziren 2010ean. Horietako 4k Euskadiko sustatzaileen partaidetza izan zuten, eta lehentasunezko hiru ardatzetan kokatu ziren.

«**INNOCAPP**» proiektuaren xedea automobilgintza eta eraikuntzaren sektoreetarako material eta produktu industrialen belaunaldi berri bat garatzea da. Horretarako, basogintza edo nekazaritzako azpiproduktuak (irinak edo zerrautsak, besteak beste) balorizatu dira. Proiektuak iraun bitartean, material berri biokonposatuen prototipoak sortu dira ekoizleek eskatutako baldintzak betetzen dituzten landare-hondakinak erabilia. Gainera, proiektuko kideen eta materiala hornitzeko kontaktatutako enpresen arteko harremanak sendotu dira, etorkizunean alor berean beste ekimen batzuk abiarazi ahal izateko. Tecnalia Reasearch & Innovation fundazioa da proiektuan parte hartzen duen Euskadiko bazkidea, eta proiektuko taldeburua da.

«**MARE URDINA**» proiektuaren helburua kostaldea babestea da. Horretarako hainbat baliabide ditu: uraren analisia, hezkuntza eta ingurumenarekiko sentsibilizazioa, eta mugaz gaindiko biztanleriaren mobilizazioa garapen jasangarriaren alde. Itsas jarduerak egiten diren eremuetako uren kalitatea neurtzeko sare bat garatu da. Ingurumenari buruzko hezkuntzari eta tokiko biztanleak kostaldea babesteko mobilizatzeari dagokienez, onuradunak ehundik gora ekitalditan izan dira, erakusketa interaktibo bat eta hiru hizkuntzako tresna pedagogikoak sortuz eta ezagutaraziz. Proiektuaren emaitzak publikoari erakutsi zaizkio tokiko komunikabideen bidez, bai eta Espainia eta Frantziako maila nazionalen, telebistan, irratan, prentsan eta interneten espazioak ipiniz ere. Proiektuan parte hartzen duten Euskadiko bazkideak Euskal Herriko Surf Federazioa (EHSF) eta Eusko Ikaskuntza dira.

«**CC**» proiektua 2008an amaitutako «Zinema Eraikitzen» proiektuaren jarraipena da, eta taldeburua Donostiako Zinemaldia da oraingo honetan ere.

«**CCT**» proiektuak mugaz gaindiko koreografia-zentroa garatu du eta izaera ofiziala eman dio. Proiektu honi esker antolaketa desberdina duten bi kultur egituretako lantaldeek batera lan egiten ikasi dute, eta funtzionamendua hobetzeko elkarrengandik

ikasi dute. Baletaren programazioan ia 34.000 pertsona joan ziren mugaz gaindiko koreografia-zentroaren esparruan programatutako ikuskizunetara. Proiektu honen Euskadiko sustatzailea Victoria Eugenia antzokia da.

4.4. 2011ko programazioa

4.4.1. 2011n amaitutako proiektuak

Hamahiru proiektu amaitu ziren 2011n. Horietako 4k Euskadiko sustatzaileen partaidetza izan zuten, eta lehentasunezko hiru ardatzetan kokatu ziren. Lau proiektu horiek programaren lehentasunezko 1. eta 2. ardatzetakoak dira.

«**MEDISEN**» proiektuak sentsore eta biosentsore batzuk garatu ditu, hatsaren bidez arnas eta digestio-aparatuko gaixotasunak lehen etapetan hautemateko gauza direnak. Tresna horiek Espainiako eta Frantziako ospitale batzuetan probatzen ari dira, haien fidagarritasuna egiaztatzeko, eta horrela lurraldeko osasun-zentro publikoetan beren erabilera sistematizatzeko. Gailu horien helburu nagusia biriketako minbiziaren detekzio goiztiarra da. Proiektuko euskal bazkidea Tecnia & Innovation fundazioa da.

«**REMAR**» proiektuak garapen jasangarriaren kontzeptua garatu du lurraldeko enpresen artean, tresnak, informazioa eta metodologia bat eskainiz, beren jarduera egin eta aldi berean ingurumena babestu dezaten. Gaur egun, elementu hauek dituzte eskura lurraldeko enpresek: Hondakinak kudeatzeko gida, ekoizpen-prozesuetan bioplastikoak erabiltzeko gida, ingurumen-eragina minimizatzeko gida, lurzoru kutsatuei buruzko gida, ekoeraginkortasun industrialaren gida eta bioenergiari eta energia berriztagarriari buruzko gidak. EAEko bazkideak Tecnia & Innovation fundazioa, Gaiker fundazioa eta Aclima-Euskadiko Ingurumeneko Industrien Kluster Elkartea dira.

«**I+E**» proiektuaren xedea berrikuntza errazteko eta indartzen ari diren sektoreak garatzeko lankidetzaz-esparruak eta metodologiak sortzea da, mugaz gaindiko mailan. Indartzen ari diren sektoretzat hartzen dira oso berritzaileak direnak, ikerketa eta garapen teknologikoan inbertsio handiak egiten dituztenak. Proiektu honetan parte hartzen duten Euskadiko bazkideak Donostiako Sustapena (taldeburu bezala) eta Gipuzkoako Ikasketa eta Ikerkuntza Teknikoen Zentroa (CEIT) dira.

«**LOREA**» proiektuaren ardatza itsas korronteen modelizazioa da. Horren bidez, Kantauriko kostaldeak itsasoko kutsaduratik babestu nahi dira. Kostaldea kudeatzeko administrazio eskudunentzako aplikazio ugari izan ditzakete garatutako aplikazioek: hondartzen segurtasuna, arrain-populazioen kudeaketa, portuak dragatzea eta hondartzak betetzea, etab. Alabaina, orain arteko erabilerarik garrantzitsuena hondartzen kudeaketa aktiboari eta bainatzeko uren kalitateari buruzkoa izan da. Izatez, proiektuak erakundeentzat duen alderdirik erakargarriena hondartzen a posteriori kudeaketa batetik denbora errealean egindako kudeaketa batera, edo kudeaketa aurreratura ere, pasatzea izango litzateke. Erakundeekin modu estuan lan eginda, aurrerapausoak egin dira zentzu horretan proiektuan, batik bat Donibane Lohitzune eta Ziburuko badiak eta Txingudikoan. Proiektu honen euskal sustatzaileak

dira Gipuzkoako Foru Aldundia, Azti fundazioa eta Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herri Lanen Saila.

4.5. 2012ko programazioa

2012ko otsailaren hasieran laugarren Programazio Batzordea egin zen. Bertan 38 proiektu programatu ziren, eta Europar Batasuneko EGEFen 30 milioi euroko diru-laguntza orokorra jasoko dute proiektu horiek.

Programatu diren 38 proiektu horietatik 22k Euskal Autonomia Erkidegoko sustatzaileen partaidetza dute. Hogeita bi proiektu horien kostua, guztira, 25,7 milioi eurokoa da eta horietatik 11 milioi euro euskal bazkideen inbertsio eskusibokoak dira, EGEFen 7,1 milioi euroko ekarpen orokorra jasoko dutelarik.

Bigarren deialdi honetan zuzenbide pribatuko EAEko 14 erakundek hartu dute parte, aurrekoan halako lau, eta horrek argi islatzen du programa honek interes handia duela Euskal Autonomia Erkidegoan. Bestalde, zuzenbide publikoko 17 erakundek ere hartu dute parte.

Zuzenbide pribatuko erakundeak	Zuzenbide publikoko erakundeak
Lea Artibai eskola profesionala	Bidasoko Garapen Agentzia
Tecnalia	Lea Artibaiko Garapen Agentzia
Gaia	Azaro Fundazioa
ENEEK	Arrasateko Enpresa eta Berrikuntzarako Zentroa
«I.D. - Iniciativas Danza» elkarte	CIC Biogune
Munduko Medikak	Euskal Herriko Unibertsitatea
Mik koop.	Neiker
Mondragon Unibertsitatea Empresagintza	Eusko Jaurlaritza
Flik-Flak	IKT
Koblakari	Barakaldoko Udala
Loiola Berrikuntza Fundazioa	Akitania Euskadi Plataforma Logistikoa
Aranzadi Zientzia Elkarte	Irungo Udala
Biodonostia Institutua elkarte	Hondarribiko Udala
Vicomtech-IK4	Ihobe
	Bidasoa –Txingudi Mugaz Gaiandiko Partzuergoa
	Berrikuntza eta Ikerketa Sanitariorako Euskal
	Victoria Eugenia antzokia

4.5.1. 2012an amaitutako proiektuak

2012an 45 proiektu amaitu dira. Horietako 9tan EAEko sustatzaileek hartu dute parte, lehentasunezko hiru ardatzetan.

«**ERALAN 2**» proiektuak berrikuntzari lotutako metodologia eta tresna zehatzak garatu ditu ETEentzat. Proiektua ixteko «Transpirenaica» izeneko mintegi bat antolatu zuten proiektuko bazkideek, berrikuntza arduratsuari buruzkoa. Horrela, mugaz gaindiko lurraldeko eragileak elkartzeko aukera izan dute, eta batera lan egiteko gaiak trukatu

eta definitu dituzte. Proiektu honetan parte hartu duen EAEko sustatzailean Mondragon Unibertsitatea Enpresagintza izan da, eta taldeburu-lanetan aritu da.

«**CCI TRANSFRONTERIZA**» proiektuari esker mugaz gaindiko merkataritza- eta industria-ganbara bat sortu da Gipuzkoa eta Pirinio Atlantikoen artean, BIHARTEAN izeneko interes ekonomikoko elkarte europar baten bidez. Sortutako erakunde berri horrek balio erantsia ekarri dio mugaren bi aldeetako enpresekin lan egiteko esparruari. Euskadiko bazkidea Gipuzkoako Merkataritza Ganbera da, eta taldeburu-lanetan aritu da.

«**FER-GIR**» proiektuaren bidez, beharrezko ikerketa eta teknologien transferentzia garatu dira eta baterako konponbideak bilatu dira Nafarroako, Euskadiko eta Pirinio Atlantikoetako abeltzaintzako hondakinak nekazaritzako ongarri bezala erabiltzeko. Hiru proiektu pilotu garatu dira eta prestakuntza emateko jardunaldi teknikoak antolatu dira nekazari eta abeltzaintzat. Proiektu honetan parte hartu duten EAEko erakundeak Neiker-Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea eta Hazi Konsultoria izan dira.

«**2011 ADP**» proiektuaren bidez Pirinio inguruko lurralde guztia Europa mailan sustatu da eta haren balioa ezagutzera eman da. Proiektuaren helburura zera da: Pirinioetan turismo-estrategia bateratu bat abiaraztea epe ertain eta luzean, inguruko turismoko eragileak bilduz. EAEko sustatzaileak Eusko Jaurlaritza (Pirinioetako Lan Elkarteko kide denez gero), Victoria Eugenia antzokia eta Bidasoa-Txingudi Partzuergoa dira.

«**BIDUR**» proiektuaren ardatza Bidasoa eta Urumea ibaietako baliabide hidrikoen mugaz gaindiko kudeaketa izan da. Ibaien arroak zeharkatzen dituen materialen ezaugarri geologiko eta hidrogeologikoak identifikatu eta ezagutzeko, 12 zundaketa egin dira, 50 eta 277 metro arteko sakonerakoak eta 86 eta 250 mm arteko zulaketa-diametrokoak. Proiektu horri esker Uraren Esparru Zuzentaraua bete da. Izan ere, arau horrek nahitaezko egiten du baliabide hidrologikoen kudeaketa jasangarri eta integratuaren planak egitea Europako arro guztietan. Hazi Konsultoria da proiektu horretan parte hartzen duen Euskadiko eragilea.

«**GALLYPIR**» proiektuaren bidez Pirinioetako mendiko galiformeak behatu eta babesteko sare bat sortu da. Horri esker, lau espezieren (basoilarra, eper zuria, eper grisa eta larreoiloa) jarraipen- eta kudeaketa-metodoak harmonizatu dira, eta horien ebaluazioa hobetu eta osatu da. Proiektu honetan parte hartu duen Euskadiko bazkidea Arabako Foru Aldundia izan da.

«**RDRH**» projektuan jarduerak garatu dira hepatitisaren prebentzioaren, detekzioaren eta laguntzaren alorrean kultura komun bat sortzeko eta infekzio-arriskuak murrizteko. Horretarako, baterako metodologia bat diseinatu da mugaz gaindiko espazioan hepatitis modu sistematikoan detektatzeko. Projektuan 159 eztabaida-talde antolatu dira, 548 esku-hartze egin dira droga-erabilerarekin lotutako arriskuak murrizteko gazteen artean, erizaintzako 348 egonaldi antolatu dira 324 proba egin dira Fibroscanekin (tresna horri esker fibrosi-maila oso ondo erakusten duen proba bat egin

daiteke 5 minutuan, gibelaren gogortasuna neurtuz). Proiektu honetan parte hartu duen Euskadiko bazkidea Munduko Medikuek elkartearen izan da.

«**AETN**» proiektuaren helburua izan da logistikaren eta garraioaren alorrean Euskadi eta Akitaniako mugaz gaindiko lurraldeetan baterako joerak daudela ikusaraztea, bai eta intermodalitatea, multimodalitatea edo aukerako modalitatea sustatu eta ahalbidetzeko instrumentuak eta tresnak garatzea ere. Hiru mintegi antolatu dira, eta 180 artikulua baino gehiago argitaratu dira prentsan proiektuari buruz. Proiektuaren onuradun bakarra Akitania-Euskadi plataforma logistikoa (PLAE) izan da.

«**REHABITAT**» proiektuaren esparrua osatzen dute mugaz gaindiko hiri-eremuen biziberritzeak, baterako espazioen hobekuntzak eta gizartearen parte-hartzearen oinarritutako integrazio sozialak. Mugaz gaindiko lurraldeetan gizartearen eta eraikinen ikuspegitik okerrera egin duten hiri-eremuak daude, eta gizarte-bazterketa arriskuan dagoen populazioa bizi da bertan. Horregatik, beharrezkoa da espazio komunak hobetzeko plan bat garatzea, bertako biztanleen zuzeneko inplikazioarekin, horien laneratzeko eta gizarteratzeko sustatuz eta auzoetako bizikidetzaren eta hiri-inguruak mantentzeko kulturaren alde eginez. 9.000 etxebizitza baino gehiago diagnostikatu dira guztira. Proiektuan parte hartu duen Euskadiko bazkidea Bilboko Udalaren Etxebizitzak Toki Erakunde Autonomoa izan da.

4.6. 2013ko programazioa

4.6.1. 2013an amaitutako proiektuak

Hogeita hamar proiektu amaitu ziren 2013an. Horietako 12k Euskadiko sustatzaileen partaidetza izan zuten, eta programaren lehentasunezko hiru ardatzetan kokatu ziren.

«**GENOMIA**» proiektuaren helburua mugaren bi aldeetako esnetarako ardi-arrazen genetika hobetzea da. Horrela, erraztu egingo da arraza autoktonoen iraupena eta, horren ondorioz, landa-inguruneen paisaia eta biztanleriari eutsiko zaio. Proiektuak iraun bitartean, 1.604 intseminazio artifizial egin dira, eta % 10-15 handitu da balorazio genomikoaren zehaztapena. Proiektua bukatu den arren, oraindik martxan dira hautaketa-eskemak eta hautaketa-irizpide komun berriak bateratzeko ikerketak. Euskadiko bazkideak Neiker-Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea (taldeburua) eta Ardiekin izan dira.

«**INNOV MUGABE**» proiektuak Bidasoaldeko eta Hego Lapurdiko Hiriguneko enpresen (ETEn) lehiakortasuna hobetzen lagundu du. Horretarako, informazioa kudeatzeko tresnak partekatu dira eta berrikuntza sustatu da enpresen eta teknologia- eta prestakuntza-zentroen artean. Proiektuari esker enpresen eta ezagutza-zentroen arteko lankidetzako 18 proiektu berritzaile antolatu dira, eta mugaz gaindiko enpresen arteko 16 lankidetzako proiektu. Mugaz gaindiko ekimenen tokiko plataforma bat sortu da, enpresa-sarearen inguruko informazioa jasotzeko. Proiektuan parte hartzen duen Euskadiko erakundea Bidasoko Garapen Agentzia da, taldeburu-lanetan.

«**TESS**» proiektuaren xedea bazkide diren eskualdeko hiru erakundeek osatutako sare bat sortzea da, mendebaldeko Pirinioetan ekonomia sozial eta solidarioaren (ESS) ikusgarritasuna eta hazkundea areagotzeko. Proiektua martxan izan den bitartean 230 pertsonari eman zaie prestakuntza 3 tailer eta 4 bisitaren bidez, 12 esperientzia-pilotu antolatu dira eta horien onuradun izan dira 168 enpresa eta erakunde, mugaz gaindiko 3 lankidetzak sare abiarazi dira eta ekonomia sozialeko 5 enpresa berri sortu dira. Proiektu honetan parte hartu duen Euskadiko bazkidea Euskadiko Konfederazioen Kooperatiba da.

«**TRANSFERMUGA**» proiektua Akitania-Euskadi plataforma logistikoak egindako lanen jarraipen bezala jaio da, eta haren xedea da tren bidezko garraioak mugaz gaindiko mugikortasunean duen papera ulertzea eta aztertzea, bai eta Baiona-Donostia korridoreko mugaz gaindiko bidaiak analizatzea ere. Galdetegi bat egin zaie 2.949 pertsonari, 4 ikerlan espezifiko egin dira, 14 bilera antolatu dira mugikortasunaren eragileekin eta 150 pertsona bildu ziren emaitzen berri emateko 2013ko abenduan antolatu zen mintegira. Zonaldeko garraioa hobetzeko proposamenak honako hauek dira: «Passbask» txartelaren banaketa hobetzea, eskualdeko espres garraioaren (TER) lineak eta Baionatik Hendaiarako CG64 autobus-linea Iruneraino luzatzea eta Bidasoa-Txingudi Partzuergoaren garraio-eskaintza propioa sortzea. Euskadiko bazkide hauek hartu dute parte: Akitania-Euskadi euroeskualdea (taldeburua), Euskotren Participaciones eta Mugikortasun Jasangarriko eta Logistikako Euskal Erakundea.

«**RÉSEAU RDR**» proiektua 2012an amaitu zen «**RDRH**» proiektuaren jarraipena da. Euskal bazkidea Munduko Medikuek elkarteak da.

«**CTFP**» proiektuak lankidetzak-esparru bat sortu du hasierako eta etengabeko lanbide-heziketako bi sistemaren artean. Sistema horien desberdinak izan arren, helburu berberak dituzte: enplegua eta mugaz gaindiko eremuaren garapen ekonomikoa. Horretarako, 26 irakaslek hizkuntza-ikastaroak hartu dituzte eta teknika berrietako prestakuntza jaso dute, hamar ikaslek Leioako ostalaritza-eskolako prestakuntza-asteen parte hartu dute eta beste hamar «Ekintzailatza-proiektuak eta negozio-pan baten sorrera» gai zuten jardunaldi batzuetan izan dira. Gaur egun, proiektuaren bazkideak errendimendu-altuko prestakuntza-zikloak ezartzeko lanean ari dira. EAEko bazkidea Ikaslan Gipuzkoa da, proiektuko taldeburua.

«**FAURECO**» proiektuaren helburua egoera ahulean dauden animalia basatien egoera hobetzea da, bai eta gizartea fauna horren kontserbazioaren alde kontzientziazatzea eta sensibilizatzea ere. Xede horrekin, fauna basatia berreskuratzeko zentro hauetako azpiegiturak hobetu dira: Ilundain (Nafarroa), Arrano Etxea eta Arizmendi (Gipuzkoa) eta Alca Torda (Landak). Animaliak berreskuratzeko 6.777 m²-ko azalera duten instalazioak sortu dira 18 azpiegitura berri eraikiz, eta 2.500 bisitari izan dira «Sentitzea animaliek bezala» izeneko erakusketan. Parte hartu duten Euskadiko bazkideak Hazi Fundazioa eta Hazi Konsultoria dira.

«**NECROPIR**» proiektuaren asmoa Pirinioetako biodibertsitateari buruzko ekimenak egituratu eta indartzea da, harrapari nekrofagoen alorreko lankidetzatik abiatuta.

Proiektu honetan 18tik gora harrapari-espezieren jarraipena egin da (ugatza, sai arrea eta sai zuria), 80 hegazti baino gehiago markatu dira eta, antolatu diren ekimenei esker, 25.000 pertsona sentsibilizatu dira. Proiektu honetan parte hartu duen Euskadiko bazkidea Arabako Foru Aldundia izan da.

«**IN AGRO SALUTE**» proiektuaren bidez Nafarroa, Euskadi eta Akitaniako nekazaritzak duen garrantziaren berri eman nahi izan zaio gizarteari. Horretarako, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren bi interpretazio-zentro sortu dira: «Gurbindo Etxea», Iruñean; eta «AGRICulturez_vous» Pirinio Atlantikoetan. Eskolako 10.000 ikaslek baino gehiagok bisitatu dituzte zentro horiek. Proiektu honetan parte hartu duen Euskadiko bazkidea Hazi fundazioa izan da.

«**CIRCULDOUCE**» proiektuaren xedea motorrik gabeko zirkulaziorako ibilbide bat eta oinezko eta txirrindularientzako produktu turistiko jasangarri berri bat sortzea da. Hori lortzeko, Getaria (Lapurdi) eta Bertiz (Nafarroa) lotzen dituen ibilbide turistiko jasangarri bat garatu da, berotegi-efektuko gasen isuri txikiagoak dituen garraio-mota bat sustatuz. Ibilbidearen luzera 78 kilometrokoa da guztira, eta ibilbideko 68 kilometrotan bidegorria dago. Etorkizunean, asmoa ibilbidea Baiona eta Iruñeraino luzatzea da, Euro Velo 1 ibilbidea errealitate bihurtzeko. Parte hartu duten Euskadiko bazkideak Bidasoko Garapen Agentzia, Irungo Udala eta Hondarribiko Udala izan dira.

«**EHKO**» proiektuak tokiko mugaz gaindiko nekazaritza ekologikoaren zigilua sortu eta garatu du. Erakunde autonomo bat sortu da, EHKO, 120 bazkiderekin, Euskadiko eta Akitaniako nekazarien artean zigilu agroekologikoa zabaltzeko eta garatzeko. Euskadiko sustatzailea ENEEK – Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua da.

«**LAZOS-LIENS-LOTURAK**» proiektuak esperientzia esanguratsuak eskaini nahi dizkie nerabeei eta gizarte-laneko profesionalei, beren prestakuntza eta gizarte-lotura hobetzeko eta ezagutza sortzeko. Proiektuak iraun bitartean harremanetan jarri dira Nafarroa, Araba, Gipuzkoa eta Pirinio Atlantikoetako 350 nerabe eta gizarte-laneko 80 profesional. Proiektua amaitu eta gero ere, baterako ekintza berriak sortu dira (hala nola, trukeak eta jarduerak) eta ikasitakoa tokiko eta eskualdeko administrazioekin eta beste profesional batzuekin partekatu da. Interes ekonomikoko elkarte europar bat eratzen ari dira ildo horri eusteko. Euskadiko parte-hartzaileak Irungo Hezi-Zerb hezkuntza eta zerbitzuen elkarte eta Arabako Bergizarteratzerako Institutua (IRSE) dira.

4.7. 2014ko programazioa

Maiatz erdialdean bosgarren Programazio Batzordea egin zen. Horretan, 14 proiektu programatu ziren, eta aldeko irizpena eman zitzaien beste 8ri, baina EGEF funtsak eskuragarri ez zeudenez ezin izan ziren programatu. Urri erdialdean proiektu horietako zazpiren programazioa onartu zen. Hortaz, 2014an, 21 proiektu programatu ziren, eta Europar Batasuneko EGEFetik 7 milioi euroko diru-laguntza esleitu zitzaien.

Programatu diren 21 proiektu horietatik bederatzik Euskal Autonomia Erkidegoko sustatzaileen partaidetza dute. Bederatzi proiektu horien kostua, guztira, 4 milioi eurokoa da eta horietatik 1,8 milioi euro euskal bazkideen inbertsio eskusibokoak dira, Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren (EGEF) 1,2 milioi euroko ekarpen orokorra jasoko dutelarik.

Sustatzaile-onuradunen kokalekuari erreparatuta, Euskal Autonomia Erkidegoa izan da hirugarren deialdi honetan EGEFen parte-hartzerik handiena izan duen mugaren hegoaldeko autonomia-erkidegoa. Euskadiko sustatzaileek programatutako Europako laguntzen % 17,4 jasoko dute.

Hirugarren deialdi honetan, onuradun diren zuzenbide pribatuko erakundeak 3 dira, eta zuzenbide publikokoak, 7.

Zuzenbide pribatuko erakundeak	Zuzenbide publikoko erakundeak
Tecnalia Research&Innovation fundazioa	Donostiako Udala
<i>Fondo Formación Euskadi</i>	CIC Biogune
Heziketa zentroa Somorrostro	Azti Fundazioa
	Eusko Jaurlaritza
	Victoria Eugenia antzokia
	Bidasoko Garapen Agentzia
	Euskal Eurohiriaren Garapena mugaz gaindiko

4.7.1. 2014an amaitutako proiektuak

Hogeita zortzi proiektu amaitu ziren 2014an. Horietako 16k Euskadiko sustatzaileen partaidetza izan zuten, eta lehentasunezko hiru ardatzetan kokatu ziren.

«**RESOT**» proiektuaren helburua mugaz gaindiko euskal eremuan gizarte-erantzukizuna duen lurraldea sustatzea da. Horretarako, pertsona eta haren interakzio-eremuak (enpresak, komunitatea, elkarteak, hezkuntza-erakundeak, administrazio publikoa) ardatz dituen eraldaketa-sare batean eragin da zuzenean. Lurraldeko ehun eragilek baino gehiagok hartu dute parte hitzaldietan eta prestakuntza-saioetan, 600 gazte baino gehiago izan dira konponbideak diseinatzeko GAZTERS ekitaldian eta desgaitasuna duten 12 ekintzailek ekintzailetza inklusiboari buruzko mintegi baten parte hartu dute. Proiektu honetan parte hartu duten EAEko sustatzaileak honako hauek izan dira: MIK–Mondragón Innovation and Knowledge (taldeburua), Irungo Udala, Hondarribiko Udala, Bidasoko Garapen Agentzia eta Mondragon Unibertsitatea Enpresagintza.

«**PYRÉNÉES DE CIRQUE**» proiektuarekin zirkuaren espazioa sustatu nahi izan da Pirinio aldean, lana antolatzeko modu produktibo eta berritzaileagoak prestatu eta zabaltzeko laguntza eskainiz. Proiektuan 146 artistak ikuskizunak sortzeko laguntzak jaso dituzte, eta zirkuako 15 ikuskizun koproduzitu dituzte; 70 artista ikuskizunak ezagutzera emateko jardueren onuradun izan dira eta 860 lagun izan dira

prestakuntza- eta ikerkuntza-jardueretan. Proiektu honetan parte hartu duten euskal erakundeak Koblakari eta Flik-Flak izan dira.

«**TRANSTIC**» proiektuaren asmoa da informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera sustatzea Euskadi, Nafarroa eta Pirinio Atlantikoez mugaz gaindiko lurraldean, eremuotako garapen ekonomikoa eta mugaz gaindiko lankidetzak indartzeko ezinbesteko tresna bezala. Horretarako, 22 prestakuntza-saio egin dira, eta horietan 396 profesionalak parte hartu dute; mugaz gaindiko 3 workshop antolatu dira zeinetara 700 lagun bertaratu baitira. Gainera, praktiketako 5 lanpostu sortu dira. Proiektua gauzatzen lagundu duen euskal sustatzailea Euskadiko Teknologia Elektronikoen eta Informazioaren Industrien Elkarte (GAIA) izan da.

«**PIREMOVB**» proiektuaren xedea lanbide-heziketaren kalitatea hobetzea da. Horretarako, ikasle, aprendiz eta prestatzaileen mugikortasuna sustatu da eta laguntza eman zaie prestakuntza-baliabideen kartografiaren bidez. Proiektuan 77 prestakuntza-fluxu antolatu dira, 509 ikasle eta aprendizek prestakuntza-praktikak egin dituzte mugaz gaindiko lurraldeko enpresetan eta 71 prestatzailek etengabeko prestakuntzako jardueretan parte hartu dute. Proiektuko bazkideek beharrezko sinergiak sortu dituzte prestakuntza-erakundeek abiarazitako mugikortasun-ekintzen jasagarritasuna bermatzeko. Proiektuko euskal erakundea Eusko Jaurlaritza izan da, zehazkiago, haren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

«**CITICOOP**» proiektuak mugaz gaindiko eguneroko arazoak aztertu ditu, eta 5 tresna sortu ditu Bidasoa – Txingudi eremuan eta sistema juridiko desberdinak dituzten mugaz gaindiko eremuetarako, herritarren bizi-kalitatea eta enpresen garapena hobetzen lan egiten duten alor juridikoko profesionalentzat. Proiektu honetan parte hartu duten Euskadiko eragileak izan dira Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatea (taldeburua) eta Bidasoko Garapen Agentzia.

«**ENERTIC**» proiektua energia berriztagarrien eta energiaren efizientziaren sektorean kokatzen da, eta haren xedea Enertic Zentroa eraikina eraikitzea izan da. Efizientzia handiko irizpide bioklimatikoen bidez sortutako mugaz gaindiko enpresa-espazio horretan egoitza izango dute energia berriztagarrien eta energiaren efizientziaren sektoreko enpresek. Proiektua amaituta, bazkideek mugaz gaindiko lankidetzak hitzarmen bat sinatu dute sektoreko enpresentzako mugaz gaindiko lehen jarduerak garatzeko. Proiektu honetan parte hartu duten EAEko sustatzaileak Donostiako Sustapena (taldeburua) eta Donostiako Udala izan dira.

«**BIOSOURCE COMP**» proiektuak jatorri naturaleko konposatu polimerikoak garatu eta ekoitzi nahi izan ditu, automobilgintzan erabiltzeko egiturazko pieza biodegradagarrien ekoizpenean aplikatzeko. Helburu horrekin, konposatuak sortzeko 3 prozesu garatu dira laborategi mailan (nahasketa) eta proiektuaren aurkezpena egin da Alemaniako FAKUMA 2014 azokan. Bertan 36 herrialdetik etorritako 1.772 erakusketari eta 45.000 bisitari baino gehiago izan ziren. Proiektu horretan parte hartu duten Euskadiko bazkideak Leartiker - Lea Artibaiko eskualdeko lanbide-heziketako eskola (taldeburua) eta Euskal Herriko Unibertsitatea izan dira.

«**CONCOTSA**» proiektua lehenago programatutako COTSA proiektuaren jarraipena da. Proiektu honetan «ikara atipiko» deritzan gaixotasuna aztertu da. Pirinioetako ardi-eta behi-espezieei eragiten die gaitz horrek. Egindako ikerketetan lortutako emaitzak azaltzeko 27 aurkezpen eman dira eta 3 lanpostu sortu dira. Proiektuko bazkideek mugaz gaindiko lantalde bat sortzeko planteamendua egin dute, gizakiei eragiten dieten gaixotasun prionikoak ere barne hartuz. Euskadiko parte-hartzailea CIC BioGUNE - Biozientziako ikerketa- eta kooperazio-zentroa elkarrekin da.

«**ENERGREEN**» proiektuaren helburua da mikroalgen hazkuntza tradizionalak berregokitzea, energia-potentzial handia duten mikroorganismoak ekoizteko. Proiektuaren garapenean zehar hazkuntza-estrategia zehatzak ezarri dira elikagaien mugaketan oinarrituz, eta horrek eduki lipidiko altuko biomasa lortzea ahalbidetu du. Beharrezkoa izango biomasa hori instalazio industrialetan berregokitzea. Gainera, hainbat erauzketa- eta eraldaketa-sistema probatu dira, eta kalitateko biodieselak lortu da erabilitako biomasaren erreserbako lipidoak gutxienez % 30ekoak direnean. Diziplina arteko lantaldeak gaia lantzen jarraituko du mugaz gaindiko lurraldeko enpresa parte-hartzaileekin batera, mikroalgak energia lortzeko helburuarekin erabili direnean identifikatu diren arazoak konpontzeko. Proiektuan parte hartu duten Euskadiko sustatzaileak honako hauek izan dira: Neiker - Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea (taldeburua), Tecnalia Research & Innovation fundazioa eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

«**AGRIPIR**» proiektuak sare bat osatu du Espainiako eta Frantziako nekazaritza eta artzaintzaren sektoreko eragileekin, unibertsitateekin eta ikerketako laborategi publikoekin, enpresa berritzaileetako laborategiekin edo lurralde-garapenekoekin. Helburua mendiko nekazaritzako berrikuntza-proiektuak sortzeko erraztasunak ematea da. Urte hauetan 230 pertsona eta 110 erakunde baino gehiago izan dira sareko dinamikako parte-hartzaile, hamar jardunaldi baino gehiago antolatu dira Pirinioen bi aldeetan eta e-Pasto izeneko proiektu pilotua abiarazi da, hesi birtualez osaturiko sisteman berritzaile bat garatzeko eta horrela gaur egun udako larretan dauden hesi fisikoak ordezkatzeko. Proiektuaren amaierako mintegian berrikuntzako lau proiektu aurkeztu ziren: MASTECH (mamitisaren detekzio goiztiarra), COWMON (abeltzaintza estentsiboko ganadua monitorizatzeko sistema), LIVE-PRE-LIVE (artaldea harraparietatik babestea) eta POWERBOX (abeltzainaren autonomia energetikoa). Honako hauek dira proiektuan parte hartu duten EAEko erakundeak: Neiker - Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea, Loiola Berrikuntza fundazioa, Tecnalia Research & Innovation fundazioa eta Vicomtech-IK4 - Interakzio Bisual eta Komunikazioaren Teknologien Zentroa.

AGRIPIR proiektua finalista izan zen Europako Batzordeak antolatzen dituen RegioStars sarien 2015eko edizioan, garapen adimentsuaren kategorian.

«**OPCC**» proiektuaren xedea klima-aldaketak Pirinioetan izan duen inpaktua ebaluatzea da. Horrela, inpaktu horiek baliabide naturaletan eta sektore sozioekonomiko ahulenetan eraginak identifikatuz eta karakterizatuz, aldaketa horren ondorio negatiboak egokitzeko aukera zabaldu nahi da. Proiektuan Pirinioetako

klimaren jokamoldeari eta joerei buruzko ikerketa batzuk egin dira, klima-aldaketaren adierazle komunak zerrenda bat definitu da eta, azkenik, mugaz gaindiko sare koherente eta iraunkor bat eratu da, Pirinioetako klima-aldaketaren gaitan (klima, biodibertsitatea, basoak, arrisku naturalak eta egokitzea) esku hartzen duten eragileekin. Proiektuan parte hartu duten Euskadiko sustatzaileak Eusko Jaurlaritza (Pirinioetako Lan Elkarteko kide bezala) eta IHOBE izan dira.

«**MONNA**» proiektuak naturaren monitorizazioa sustatu nahi du, ingurumena eta biodibertsitatea kudeatzerakoan politika publiko eraginkorrak abiarazteko aukera emango duen bitarteko bezala. Urte hauetan, proiektuak hegaztien monitorizazioa egiteko bi metodo berri definitu ditu jarraipena egiteko teknologien gailuak erabilita (GSM-GPS eta Sigfox). Horiek orain arteko teknika tradizionalen alternatiba dira. Bi gailu horiek arrakastaz erabiltzen dira dagoeneko hogeitaz hamar gehiagorekin. Gainera, jarraipeneko plataforma interaktibo bat garatu da eta mugikorretarako aplikazio bat diseinatu da, turistei zuzendua, hegaztiak Android sistema duten gailuetatik lokalizatzeko. Proiektuan lagundu dute Euskadiko bi erakundek: GAIA-Euskadiko Teknologia Elektronikoen eta Informazioaren Industrien Elkartea (taldeburua) eta Vicomtech-IK4 - Interakzio Bisual eta Komunikazioaren Teknologien Zentroa.

«**GURATRANS**» proiektuak modu bateratuan heldu nahi izan dio Europako plan hidrologikoetako neurrien aplikazioari, marko horiek eskaintzen dituzten hobekuntzak sustatuz eta agintari eskudunen arteko koordinaziorik onena eta herritarren inplikazioa indartuz. Pirinioetako mendebaldeko muturreko bost ibaitan egin da hori: Bidasoan, Urdazurin, Urumean eta Oriaren ibaiadar diren Araxes eta Leitzaran ibaietan. Proiektu honi esker Inturiako urtegia eraisteko lehen bi faseak gauzatu dira (urtegia ez zen erabiltzen, ibaiaren jarraitasuna eteten zuen eta arrain-populazioen tamaina mugatzen zuen), ibaiaren ibilgua berreskuratu da Pikoaga inguruan enbor eta harkaitzekin egindako egiturak instalatuz, hainbat jarduera egin dira Berako zentral hidroelektrikoko presa txikia kentzeko, landare inbasiboak kontrolatzeko ekintzak egin dira Bidasoa eta Urdazuri ibaietan eta azterlan eta auditoretza ekologiko espezifikoak burutu dira. Proiektu honekin ur-baliabideetako kontrola eta horiei lotutako ekosistemen egoera hobetu da. Proiektu honetan parte hartu duen EAEko sustatzailea Hazi fundazioa izan da, eta taldeburu-lanetan aritu da.

«**TERRES D'IMAGINAIRE**» proiektuak, Tournefeuille eta Barakaldoko hiriek zuzenduta, aztertu du hiri ertainek nola susta dezaketen sormena (hau da, artearen eta kulturaren bidez, nola izan daitezkeen erakarpen- eta garapen-dinamikak sortzen dituzten hiriak) dauden metropolialdeetan (Bilbo eta Tolosa). Urte hauetan, bi hiriek artearekin eta sormenarekin lotutako 37 ekintza baino gehiago egin dituzte espazio publikoetan, urtero bi hirietan antolatutako «Gau euforikoetan» 42.000 ikusle baino gehiago izan dira, arteak eta enpresak elkarrengana hurbiltzeko 17 ekintza egin dira eta «Sormenezko hirientzako liburu zuria»ren 1.000 ale banatu dira. Barakaldok eta Tournefeuillek elkarlanean jarraitzen dute, beren esperientzia mugaz gaindiko beste hiri batzuetara zabaltzeko, mugaz gaindiko sormenezko hirien sare bat sortu nahi duen Europako proiektu batean. Barakaldoko Udala da proiektu honetako euskal bazkidea.

«**IREKI**» proiektuak Dantza Hirian hobetu, garatu eta sustatu du Baiona-Donostia Eurohiriaren esparruan. Dantza Hirian hiri-paisaietako mugaz gaindiko dantza-jaialdi ibiltari bat da, eta haren xedea dantza garaikidea sortu eta hedatzen lagunduko duen sentsibilizazio-plataforma bat izatea da. Proiektuak esku hartu duen Euskadiko bazkidea «I.D. - Iniciativas Danza» elkarteak izan da.

«**BALLET T**» proiektuaren helburua Euskadin arte koreografikoa hedatzea da. Horretarako, koreografia-lanak koproduzitu eta eskainiko dira, eta herritarrak sentsibilizatu eta mobilizatzeko dira Akitania-Euskadi euroeskualde guztian. Urte hauetan 16.000 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute publikoaren sentsibilizazio- eta mobilizazio-programan Biarritz eta Donostia artean eta proiektuak laguntza eman die 4 artistari obra berriak sortzeko eta beren konpainia egituratzeko. Koreografiaren inguruko lankidetzak gunea garatzen jarraitzea da asmoa, martxan diren ekintzei eutsiz eta ekimen berriak abiaraziz. Victoria Eugenia antzokia da proiektu horretan parte hartzen duen Euskadiko eragilea.

4.8. 2015eko programazioa

4.8.1. 2015ean amaitutako proiektuak

Hogeita zortzi proiektu amaitu ziren 2015ean. Horietako hamaikak Euskadiko sustatzaileen partaidetza izan zuten, eta lehentasunezko hiru ardatzetan kokatu ziren.

«**ERAIKINN**» proiektuak enpresa berritzaileen sorrera sustatu du parte hartu duten eskualdeetan. Horretarako, identifikazioa, definizioa eta sustatzaileentzako aholkularitza erabili dira eta aliantzak eta lankidetzak eremuak sortu dira tokiko eta nazioarteko antenen bitartez. Azken urteotan sei enpresa berri sortu dira, eta hamar negozio-aukera bideragarri identifikatu dira. Dagoeneko martxan ziren enpresetan, 16 negozio-unitate berritzaile sortu dira eta berrikuntza eta optimizazioko 19 proiektu abiarazi dira. Gaur egun, akordioak daude mugaren bi aldeetako enpresen eta teknologia-zentroen artean nekazaritza eta elikaduraren, turismoaren, osasunaren eta teknologia garbieraren sektoreetan, eta horiek proiektuaren esparruan hasi zen lanarekin aurrera jarraitzen dute. Proiektu honetan parte hartu duten EAEko sustatzaileak honako hauek izan dira: Azaro fundazioa (taldeburua), Arrasateko Enpresa eta Berrikuntzarako Zentroa eta Lea Artibaiko Garapen Agentzia.

«**INNOV MUGABE 2*2**» proiektuak lehenago egindako INNOV MUGABE proiektuan garatu zen enpresa arteko mugaz gaindiko lankidetzaren metodologiaren transferentzia izan du ardatz, Bidasoaldeko eta Lapurdi hegoaldeko enpresen lehiakortasuna sustatzeko. Bigarren fase honetan lurraldean lehentasuna dutela ebatzi den bi sektoretara zabaltzeko metodologia (sektore nautikoa eta nekazaritza eta elikagaigintza), eta garapen jasangarriaren ikuspegi nabarmen bat txertatu da, berrikuntzari lotuta. Bi sektore horietako ETEen berrikuntzarako 15 diagnostiko egin dira, nekazaritza eta elikagaigintzaren sektorearen mugaz gaindiko 2. foroa eta 2. foro nautikoa antolatu dira, eta tokiko produktuen balioa azpimarratzeko kanpaina bat abiarazi da (gure GOURMET). Proiektuan parte hartzen duen Euskadiko erakundea Bidasoko Garapen Agentzia da, taldeburu-lanetan.

«**BANG**» asmoa da etorkizuneko inkubagailuentzako eredu bat definitzea eta jarduera-sorgailu bat sortzeko aplikatzea, Fab Labeko kontzeptuak erabiliz, ekodiseinuaren alorrean alor teknologikoko sormena sustatzeko. Proiektua aurkezteko bi dinamika antolatu dira eta horietara 6 proiektu aurkeztu dira; 30 enpresaren partaidetza izan duten hiru tailer tekniko egin dira eta 3 coaching-proiektu hautatu dira. Proiektu honetan parte hartu duen Euskadiko erakundea Tecnalía Ventures izan da.

«**PIRECOW**» proiektuak tresna digitalen erabilera erraztu nahi izan du eta Pirinioetan dauden coworking-espazioak sareratu nahi izan ditu, langile nomadei zuzendutako hiru hizkuntzako lanbide-heziketako programa baten bitartez. Horretarako, coworkingari buruzko bi ekitaldi antolatu dira (200 pertsona bertaratu dira horietara) eta Pirinioetan dauden coworking-espazioak ikusarazi dira. Euskadiko parte-hartzaileak Euskadiko Prestakuntza Funtza eta Somorrostroko Prestakuntza Zentroa izan dira.

«**REFBIO**» proiektuak Pirinioetako mugaz gaindiko eremuan erreferentzia izan nahi duen biomedikuntzako ikerkuntza-sare bat sortu du, Europa mailako ikerketa proiektu lehiakorrek sustatzeko. Sare horrek baditu 2.000 ikertzaitetik gora, 200 ikerketa-talde 25 zerbitzu eta I+G-ri laguntza emateko 11 unitate. Era berean, mugaz gaindiko 2 workshop antolatu dira, 184 pertsonaren partaidetzarekin, eta biomedikuntzako I-G-ko mugaz gaindiko 17 proiektu burutu dira. Proiektu honetan parte hartzen duten Euskadiko sustatzaileak Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioa eta Biodonostia Institutua Erakundea dira.

«**TRANSPRION**» proiektuaren bidez aurreko CONCOTSA izeneko projektuan hasi ziren anduien kutsagarritasunari buruzko ikerketak amaitzea zen asmoa. Horrela, gizakiek kontsumitzeko txerri- eta behi-produktuen segurtasuna sustatu nahi zen. Helburu hori lortzeko 2 artikuluko zientifiko argitaratu dira, nazioarteko osoko 2 konferentzia eta sektoreko profesionalentzako 2 mintegi antolatu dira eta 2 hitzaldi eman zaizkie derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasleei. Proiektuko bazkideek mugaz gaindiko lantalde bat sortzeko planteamendua egin dute, gizakiei eragiten dieten gaixotasun prionikoak ere barne hartuz. Proiektu honetan parte hartu duen Euskadiko erakundea CIC BioGUNE - Biozientziako ikerketa- eta kooperazio-zentroa elkartea izan da.

«**ESSAI URBAIN**» proiektuak lehengaiak aurrezte eta ingurumen-inpaktuak murriztea sustatu du, hiri-eremuak eta auzoak kudeatzeari eta bizi-zikloaren azterketak erabiltzeari dagokionez. Horretarako, energia berriztagarriak sortzeko teknologien ingurumen-ebaluazioa eta ebaluazio ekonomikoa egiteko 4 fitxa prestatu dira, 600 eskuorri informatibo argitaratu dira eta 4 prestakuntza-/hedapen-ikastaro antolatu dira tokiko 15 erakunderekin, 75 parte-hartzaile baino gehiago erakarriz. Proiektu honetan parte hartu duen Euskadiko bazkidea Tecnalía Research & Innovation izan da.

«**TXINBADIA**» proiektuak lankidetzaren sare bat sortzea izan du ardatz, Txingudiko badiako espazio naturalen erabilera publikoa kudeatzeko moduak hobeto ezagutzeko eta gunen horien erabilera jasangarri baterako dinamizazio-, sentsibilizazio- eta informazio-programak eta -jarduerak modu bateratuan egiteko. Proiektuan 116 teknikarik lagundu dute esperientziak trukatzeko jardunaldietan, 17 argitalpen tematiko

editatu dira eta 23.500 pertsonak hartu dute parte antolatu diren jarduera eta ekitaldietan. Euskadiko erakunde parte-hartzailea Eusko Jaurlaritza izan da, zehazkiago, Ingurumen eta Lurralde Politika Saila, eta taldeburu-lanetan aritu da.

«**TXINBADIA 14-15**» proiektua TXINBADIA proiektuaren jarraipena da, bi espazioetako kudeaketa-taldeen arteko lankidetzak-harremanak indartzeko eta lankidetzako lan-ildo berrietan aurrera egiteko. Badiaren Gidaplana datozen urteetarako bide-orria izango da, eta batzorde tekniko bat eta politiko bat sortu dira garapenaren jarraipena egiteko. Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak proiektuan parte hartu du, taldeburu-lanetan.

«**REDVERT**» proiektuaren helburua hauxe da: Euskal Eurohiriari benetako bilbe berdea eta urdina ematea, bertako kide diren lurraldeko kolektibitateek beren plangintza-proiektuetan biodibertsitatearen kontserbazioaren arloko erronkak kontuan hartu ahal izan ditzaten. Helburu horrekin 741 mapa sortu dira egindako azterlan kartografikoan, 82 udalerriren inplikazioa lortu da eta 28 ikastetxetako 650 ikasle eta irakasleek parte hartu dute antolatu diren 28 bisita, txango eta baterako jardueretan. Proiektuaren bazkide bakarra Baiona-Donostia Eurohiria garatzeko mugaz gaindiko agentzia izan da.

«**PRE2PLA**» proiektuak kostaldeko ondare naturalaren kudeaketa integratu eta jasangarria sustatu du, mugaz gaindiko eremuko hondartzak erabiltzeko baldintzak eta horietako arriskuaren prebentzioa aurreikusteko tresna berritzaileak transferituz. Ekaitzak eragindako arriskuak ikusi eta analizatzeko mugaz gaindiko aplikazioaren 4 erabiltzaile-talde sortu dira, eta lortutako emaitzak hedatzeko 4 konferentzia antolatu dira. Proiektu honetako Euskadiko parte-hartzailea AZTI fundazioa da, taldeburu-lanetan.

5.- 2007-2013 programa eragilearen amaierako egoera

Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzarako Programa Eragilearen eremuan, 2008-2014 aldian, 152 proiektu onetsi dira mugaz gaindiko lurralde osoan, gutxi-gorabehera 257 milioi euroko zenbatekoarekin. Bada, 168 milioi euro inguruko Europar Batasuneko diru-laguntza orokorra jasoko dute proiektu horiek. Programaren gauzatze-maila oso altua izan da, % 100etik gertukoa.

Programatutako 152 proiektu horietatik 57k Euskal Autonomia Erkidegoko sustatzaileen partaidetza dute. Horien kostua, guztira, 79 milioi eurokoa da eta horietatik 28 milioi euro euskal bazkideen inbertsio eskusibokoak dira, Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren 18,4 milioi euroko ekarpen orokorra jasoko dutela.

Euskadiko sustatzaileen partaidetza izan duten programatutako 57 proiektuen tipologiari dagokionez, 39 gertuko proiektuak dira, hau da, proiektuko bazkideak mugaren mendebalde ingurukoak dira (Aragoikoak, Errioxakoak, Nafarroakoak, Euskadikoak eta Akitaniakoak). Programatu diren gainerako 18 proiektuak transbertsal bezala sailkatzen dira, parte-hartzaileak mugaz gaindiko lurraldearen gainerako eremuetatik baitatoz. Urte hauetan EGEFen diru-laguntza jaso duten onuradunak

zuzenbide publikoko 36 erakunde eta zuzenbide pribatuko 25 erakunde izan dira. Horietatik, 26 proiektuaren taldeburu izan dira, hau da, proiektua modu integralean gauzatzeko ardura bere gain hartu dute.

Euskal bazkidea duten proiektuen guztizko inbertsioaren batezbestekoa 492.269 euro ingurukoa da. Onetsitako proiektuen artean, inbertsio txikiena duena 53.254 eurokoa izan da (Transprion), eta inbertsio handiena duena 3.514.222 eurokoa (Enertic).

Ardatzen araberrako sailkapena kontuan hartuta, honakoa nabarmen daiteke: 1. ardatza (*«Mugaz haraindiko integrazioa indartzea jarduera ekonomikoen, berrikuntzaren eta giza kapitalaren eremuko alderdi osagarriei balioa emanez»*) euskal bazkideen inbertsioaren % 62 da; horren atzean 2. ardatza dago (*«Lurraldeei, eta natura- eta kultura-ondareari balioa ematea logika iraunkorrean. Ingurumen-baliabideen kudeaketa babestea eta bultzatzea»*), inbertsioaren % 27rekin, eta gero 3. ardatza (*«Biztanleen bizi-kalitatea hobetzea lurraldearen egituraketaren eta garapen iraunkorraren estrategia komun bidez»*), % 11rekin.

1. ardatzari dagokionez, EAEko bazkideen inbertsio handiena duten proiektuak 1.3. neurrian daude (*«Ikerketa eta Garapena»*), % 36rekin; 2. ardatzari dagokionez, 2.1 neurrian (*«Natura-ondarea, arriskuen prebentzioa eta energia babestu eta balioestea»*), % 20rekin; eta 3. ardatzari dagokionez, 3.2. neurrian (*«Lurraldearen egituraketa kulturaren, osasunaren, hezkuntzaren, gizarteratzearen eta aukeraberdintasunaren arloan»*), % 9rekin.

INTERREG IV A-ESPAÑA-FRANCIA-ANDORRA.
PROYECTOS VASCOS PROGRAMADOS 2008-2014

Medida	Descripción	Proyecto n°	Nombre Proyecto	Costo total	Inversión socio vasco	Feder	%Inversión por medida	%Proyectos por medida	%Inversión socio vasco por medida	%Feder por medida
1.1	Desarrollo económico	13		14.149.356	6.030.077	3.919.550	17,90%	22,81%	21,49%	21,31%
		20/08	CCI Trans	884.930	442.720	287.768				
		47/08	Remar	1.276.680	443.495	288.271				
		80/08	I+E	993.393	687.829	447.089				
		134/09	Innov Mugabe	1.195.000	542.231	352.450				
		145/09	Tess	1.228.642	293.580	190.827				
		181/11	Eraikinn	1.409.188	1.097.072	713.097				
		203/11	Resot	1.508.909	1.194.309	776.301				
		218/11	Transfermuga	390.776	195.388	127.002				
		224/11	Pyrénées de Cirque	1.184.451	180.000	117.000				
		235/11	Opcc	1.916.098	227.711	148.012				
		257/11	Transtic	877.234	283.265	184.122				
		283/13	Innov Mugabe 2º2	495.716	217.477	141.360				
		303/13	Bang	788.339	225.000	146.250				
1.2	Formación	4		2.722.090	1.175.701	764.205	3,44%	7,02%	4,19%	4,16%
		198/11	Premobv	1.082.735	200.000	130.000				
		210/11	Citicoop	532.800	460.679	299.441				
		249/11	CTFP	669.755	330.222	214.644				
		285/13	Precow	436.800	184.800	120.120				
1.3	Investigación y Desarrollo	15		19.080.816	10.073.173	6.547.563	24,14%	26,32%	35,90%	35,60%
		14/08	Innocapp	1.145.068	438.190	284.824				
		16/08	Medisen	1.067.489	309.230	201.000				
		79/08	Fer-Gir	1.447.829	459.125	298.432				
		120/09	Genomia	1.152.050	405.921	263.849				
		132/09	Eralan 2	1.100.000	707.692	460.000				
		149/09	Ehertic	4.153.846	3.514.222	2.284.244				
		179/11	Biosource	1.545.572	1.238.572	805.072				
		205/11	Concotsa	552.385	227.475	147.859				
		217/11	Energreen	1.015.701	524.815	341.130				
		229/11	Agripir	985.526	382.522	248.639				
		237/11	Refbio Pyrénées	3.084.523	872.234	566.952				
		238/11	Reseau Rdr	150.213	57.590	37.434				
		245/11	Monna	1.019.851	660.397	429.258				
		282/11	Transprion	261.981	53.254	34.613				
		287/11	Essai Urbain	398.781	221.935	144.258				
TOTAL EJE 1							45,49%	56,14%	61,58%	61,07%
2.1	Protección y valorización del patrimonio natural, prevención de riesgos, energía	11		17.926.075	5.546.092	3.604.959	22,68%	19,30%	19,77%	19,60%
		63/08	Lorea	2.206.193	1.082.386	703.551				
		81/08	Gallipyr	2.654.292	70.908	46.090				
		58/08	Bidur	2.344.077	552.066	358.842				
		89/08	MU	1.770.650	588.050	382.233				
		118/09	Faureco	1.323.077	490.734	318.977				
		130/09	Necropir	2.172.170	121.503	78.977				
		186/11	Txinbadia	2.790.322	1.234.942	802.712				
		221/11	Guratrans	1.070.164	492.122	319.879				
		267/11	Redvert	304.280	152.140	98.891				
		271/11	Txinbadia 14-15	1.078.869	636.048	413.431				
		279/13	Pre2pla	211.981	125.194	81.376				
2.2	Turismo sostenible	2		10.007.614	1.463.817	951.482	12,66%	3,51%	5,22%	5,17%
		161/09	Circuldouce	8.049.113	1.266.217	823.042				
		184/11	2011 Adp	1.958.501	197.600	128.440				
2.3	Valorización de los productos locales	2		5.418.630	684.180	444.717	6,86%	3,51%	2,44%	2,42%
		133/09	In Agro Salute	5.200.000	580.180	377.117				
		222/11	E-HKO	218.630	104.000	67.600				
TOTAL EJE 2							42,20%	26,32%	27,42%	27,19%
3.1	Accesibilidad: Transporte y TIC	1		1.609.432	523.065	523.065	2,04%	1,75%	1,86%	2,84%
		46/08	AETN	1.609.432	523.065	523.065				
3.2	Estructuración territorial en materia de cultura, salud, educación, inclusión social e igualdad de oportunidades	9		8.119.258	2.563.231	1.634.530	10,27%	15,79%	9,14%	8,89%
		02/08	Cine en Construcción	167.711	121.638	69.380				
		27/08	OCT	1.657.502	433.300	281.645				
		69/08	Rehabitat	2.607.553	493.675	320.889				
		113/09	CC	371.120	275.340	178.971				
		129/09	Lazos-Liens-Loturak	569.995	182.198	111.053				
		152/09	RDRH	1.013.082	253.093	150.000				
		183/11	Terres d' Imaginaire	1.070.000	535.000	347.750				
		260/11	Ireki	662.295	268.987	174.841				
		277/11	Ballet T	306.588	128.090	83.259				
TOTAL EJE 3							12,31%	17,54%	11,00%	11,73%
TOTAL		57		79.033.267	28.059.332	18.390.067	100,00%	100,00%	100,00%	100,00%